

HIGA 2025: Hizkuntza Biziberritzea eta Gazte Aktibismoa Nazioarteko Lankidetzan



JUNE TELLETXEA FRANCO

UOC, HIGA

AINHOA PARDINA ARENAZA

UPV/EHU, ELEBILAB, HIGA

HIGA
(Hizkuntza
Gutxituetako
Hiztun
Gazteen

Topaketa) bi urtetik behin egiten den nazioarteko ekitaldia da, zeinak helburu baitu hizkuntza gutxituetako gazteak elkartu, kontzientziatu, prestatu eta sareak sortzeko espazioa eskaintzea. Ekimen honek, kultura-aniztasuna sustatzeaz gain, gazteei beren hizkuntza biziberritzeko duten rola indartzen die. Proiektua akademiatik eta aktibismotik elikatzen da, bi esparruen arteko zubi izan nahi du, eta, horretarako, teoria eta ekintza uztartzen ditu.

Ekimen honen garrantzia ulertzeko, kontuan izan behar da munduko hizkuntzen erdia desagertzeko arriskuan dagoela. Errealitate horren aurrean, HIGAk belaunaldi berriek beren hizkuntzak babestu eta kultura-aniztasuna indartzeko ekimen estrategikoa eskaintzen du. Zehatzago, proiektu honen hizkuntza gutxituen biziberritzea bermatzeko nazioarteko ekimen bat eskaintzen du, non 18-35 urte bitarteko gazteek esperientziak eta estrategiak dituzten; horrela, hizkuntza-politikan parte hartzen dute, eta sare globalak sortu.

Nabarmentzekoa da ekimen hau Gasteizen egiten dela, HIGA elkartearen eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzarekin. Hain zuzen ere, HIGA Gasteizko Udalaren ekimenez sortu zen 2011n, eta, gaur egun, mundu mailako ekimen bakarra da zeinean hizkuntza gutxituen biziberritzean gazteen gaitasunak eta ideia berritzaileak baliatzen diren, eta gazteen rola nabarmentzen den. Gainera, instituzio eta komunitateen arteko elkarlanak proiektuaren jarraitutasuna eta hazkundera bermatu du

urteetan zehar. Izan ere, Pardinak eta Garaiok (2023)¹ azpimarratzen duten moduan, HIGAk nazioarteko hizkuntza komunitateetan hizkuntza gutxituen biziberritzea eta sareak sortzea indartzeaz gain, gazteen arteko elkartrukeak bizirik mantentzen ere laguntzen du.

HIGAk lau edizio izan ditu orain arte, 2011tik gaur arte, eta batetik bestera proiektua etengabe garatzen eta hobetzen joan da (Pardina eta Garaio, 2023), eta beti bultzatu du gazte aktibisten parte-hartzea, eta hizkuntza gutxituak biziberritzeko ikaskuntza eta lankidetzara sustatu ditu.

Lehen edizioa, HIGA 2011, Gasteizko Udalaren ekimenez sortu zen, hizkuntza gutxituen aldeko lehen topaketa gisa. Bertan, Europako zazpi eskualdetako gazteak bildu ziren, hizkuntza gutxituen erronkak partekatu eta aniztasunaren defentsarako eztabaidak bultzatzeko: britainiarrak, korsikarrak, galiziarrik, kataluniarrak, valentziarrik.

¹ Pardina Arenaza, Ainhoa eta Beñat Garaio Mendizabal. 2023. «HIGA! 2023: munduko hizkuntza gutxituen etorkizunerako aletxo». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 129, 97-114. Andoain (Gipuzkoa). <https://doi.org/10.55714/BAT-129.5>

rrak, mallorcarrak, eta, azkenik, euskal herritarrak.

Bigarren edizioa 2018an egin zen. Edizio honek nazioartekotzea lortu zuen, 75 gazte eta 35 hizkuntza gutxitu baino gehiagoko ordezkariak izan baitziren. Hain zuzen ere, aurreko edizioan ez bezala, Latinamerikako eta Afrikako gazteek parte hartu zuten edizio honetan, eta komunikazio digitala sartu zen hizkuntzen biziraupenerako tresna gisa. Hala, elkarlan proiektu berriak sortu ziren, eta gazteen arteko elkartrukea indartu zen.

Hirugarren edizioa, 2021ekoa, oso ezberdina izan zen; izan ere, pandemiaren eraginez, proiektua online formatura egokitu zen, eta ordura arteko HIGA edizio hartarako e-GA bihurtu zen. Hala, online proiektuaren lehiaketak antolatu ziren, non poesia, hitzaldi eta musika ekitaldiak izan ziren. Teknologiaren erabilerak garrantzia hartu zuen, eta gazteen sormena eta proiektuak bultzatu ziren formatu digitalean.

Azkenik, pandemiaren ondoren, 2023an, egin zen HIGAn laugarren edizioa. Orain arteko ediziorik aberatsena izan zen, 75 gazte aktibista eta 55 hizkuntza gutxitu baino gehiago bildu baitzituen. Gainera, HIGA Plaza plataforma digitala sortu zen, proiektuen elkarlana eta ikaskuntza partekatua bultzatzeko. Kasu honetan, hizkuntza-aniztasunaren defentsa, teknologia berrien erabilera eta hizkuntzen biziberritzea izan ziren ardatz nagusiak.

Orain arte egin diren edizioetan, beraz, egiaztatu ahal izan dugu HIGAn giro bikaina sortzen dela eta lankidetzarako aukera handiak daudela etorkizunera begira; eta, gainera, geroz eta oihartzun handiagoa duen proiektua dela, maila profesional altua izaten duena. Hala, erakunde eta pertsonen atzeraelikatze baikorra jaso izan da, eta espero da edizio honetan ere onura horiek guztiak jasotzea, baita 2023ko edizioa hobetzea ere.

Hain zuzen, HIGA 2025en bosgarren edizioak berrikuntzak eta aurrerapenak ekarriko ditu, baita hizkuntza gutxituen defentsan nazioarteko komunitatea handitzea ere. Hitzorduak 80 gazte aktibista bilduko ditu, eta 55 hizkuntza gutxitu baino gehiago ordezkatzeko dira bertan. Lehen aldiz, bost kontinenteetatik etorriko dira parte-hartzaileak, eta orain arteko ediziorik nazioartekoena bilakatuko da. Beraz, 400 hautagaitza baino gehiago jasota, HIGA 2025 inoiz baino komunitate anitz eta zabalagoa bihurtu da.

Aurtengo topaketaren helburua gazteek hizkuntza politiken inguruko ideiak trukitzea eta proiektu kolaboratiboak sortzea da, etorkizunean beren komunitateetan aplikatu dituzten. Helburu hori gauzatzeko, HIGA 2025ek jardueran anitz eta dinamikoak biltzen dituen bost eguneko egitarau aberatsa eskainiko du, arreta berezia jarriz teknologia digitalaren eta hizkuntza biziberritzearen arteko nahiz ingurumen-jasangarritasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren arteko harremanean. Lehenengo egunean, hizkuntza politiken inguruko ikuspegiak partekatuko dituzte gazteek, eta hizkuntza gutxituen biziraupenaz eta erronkez eztabaidatuko dute.

Horren harira, bigarren egunean, hizkuntzen eta ingurumenaren arteko lotura aztertuko da, eta, horretarako, narritibak nahiz estrategiak sortuko dituzte. Ondoren, hirugarren egunean, artea eta kultura ardatz izango dira, eta musika, dantza, poesia eta arte eszenikoak erabiliko dira hizkuntzak sustatzeko. Laugarren egunean, teknologia digitala eta sare sozialak baliatuko dira hizkuntzen biziberritzea bultzatzeko. Azkenik, bosgarren egunean, proiektuak aurkeztu eta jarraipen-planak zehaztuko dira, gazteek elkarrekin sortutako proiektuak etorkizunean gara ditzaten.

Egitarauaz gain, aurtengo berrikuntza nagusia HIGA Plaza plataforma digitala

izango da, eta horrek parte-hartzaileek elkarrekin lan egitea eta proiektuen jarraipena egitea ahalbidetuko du. Plataforma horretan, eduki sortzea eta gamifikazioa erabiliz, gazteek hizkuntza gutxituak sustatzeko tresna berriak garatuko dituzte. Horrela, plataformak urte osoan aktibo egotea ahalbidetuko du, eta topaketen arteko jarraitutasuna bermatuko du. Beraz, horrek ere lagunduko dio HIGA 2025i gazteen aktibismoa indartzen, komunitateetan parte-hartzea eta hezkuntza inklusiboa sustatzeko estrategiak garatuz.

Laburbilduz, Gasteizko Udalaren ekimenez sortutako HIGA proiektua administrazioaren eta gazteen arteko lankidetzaren eredu berritzaile eta garrantzitsua da hizkuntza gutxituen biziberritzean. Hain zuzen ere, ekimen honek bi indar nagusi uztartzen ditu: batetik, administrazioaren hizkuntza politikak eta baliabideak, eta, bestetik, gazteen protagonismoa eta aktibismoa. Horrela, gazteak hizkuntza normalizazioaren funtsezko eragile bihurtzen dira.

Hala, hizkuntza biziberritzeko estrategiak probatuz eta garatuz laborategi moduan funtzionatzen duen proiektu honek hainbat tresna eskaintzen dizkie gazteei hizkuntza gutxituen erabilera eta prestigioa sustatzeko. Era berean, proiektuak nazioarteko komunitateekin sareak eraikitzeak aukera paregabea eskaintzen die bertako parte-hartzaile diren gazteei. Esperientzien trukaketa honi esker, aktibismoa indartzen da, eta hizkuntza komunitateen arteko elkarlana sustatzen da.

HIGA, beraz, plataforma transnazional gisa definitu daiteke, non gazteen parte-hartzea eta hizkuntza normalizazioaren aldeko ekintzak uztartzen diren. Bere helburu nagusia hizkuntza gutxituen etorkizuna bermatzea da, eta, horretarako, aktibismoaren eta elkarlanaren bidez, tresna eraginkorrak eskaintzen dizkie hizkuntza komunitate ezberdinei. ■